

JABEKIDEEN ERKIDEGOEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO ETA NORBANAKO ZAURGARRIEI DIRU-LAGUNTZA GEHIGARRIAK EMATEKO DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK ELGOIBARKO UDALERRIAN EULOGIO ESTARTA KALEKO 1 ETA 9 ZENBAKIEN ARTEAN DAUDEN BIZITEGIETARAKO ERAIKINAK ERABERRITZEKO

AURKIBIDEA

1. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK.....	3
1. ARTIKULUA. OINARRI ARAUTZAILEEN XEDEA.....	3
2. ARTIKULUA. ARAUDI ERREGULATZAILEA.....	3
3. ARTIKULUA. OINARRI ARAUTZAILEEN ESPARRUA ETA APLIKAZIOA.....	3
4. ARTIKULUA. ERAIKINEN ERABERRITZE SAKONEAN KONTUAN IZAN BEHAR DIREN JARDUERAK.....	3
5. ARTIKULUA. FINANTZAZIOA, AURREKONTUKO KREDITUAK ETA OINARRI HAUETAKO DIRULAGUNTZEN GUZTIZKO GEHIENEZKO ZENBATEKOA.....	6
6. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA.....	6
2. KAPITULUA. ONURADUNEN, ESKU-HARTZEN DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUEN ETA ERAIKINEN BETEBEHARRAK.....	7
7. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEAK.....	7
8. ARTIKULUA. LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK.....	7
9. ARTIKULUA. PARTE HARTZEN DUTEN BESTELAKO ERAKUNDEAK.....	8
10. ARTIKULUA. PARTE HARTZEN DUTEN BESTELAKO ERAKUNDEEN BETEBEHARRAK.....	9
11. ARTIKULUA. ERABERRITZEAREN XEDE DIREN ERAIKINEN BALDINTZAK.....	9
12. ARTIKULUA. KOMUNIKAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO BALDINTZAK.....	10
13. ARTIKULUA. KUDEAKETA BATZORDEAK. LANAK ESLEITZEKO BALDINTZAK.....	11
3. KAPITULUA. OINARRI HAUEK BIDEZ DEITUTAKO DIRULAGUNTZAK.....	12
14. ARTIKULUA. DEIALDIKO DIRULAGUNTZEN JATORRIA.....	12
15. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GASTUA ETA DIRULAGUNTZEN GEHIENEZKO ZENBATEKOA.....	12
16. ARTIKULUA. AHULTASUN EKONOMIKOKO EGOERAN DAUDEN PERTSONA FISIKOENTZAKO EDO BIZIKIDETZA-UNITATEENTZAKO LAGUNTZA GEHIGARRIAK.....	13
4. KAPITULUA. JABEKIDEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK.....	15
17. ARTIKULUA. AURRETIAZKO AZTERKETAK ETA PROIEKTU TEKNIKOAK.....	15
18. ARTIKULUA. ETXEBIZITZEN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO JARDUERAK.....	15
19. ARTIKULUA. ERAIKINEAN ENERGIA EZ BERRIZTAGARRIEN KONTSUMOA MURRIZTEKO JARDUERAK.....	16
20. ARTIKULUA. JABEKIDEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK AMIANTO HONDAKINAK KENTZEKO, MANIPULATZEKO, GARRAIATZEKO ETA KUDEATZEKO.....	17
21. ARTIKULUA. OBRA OSAGARRIAK EGITEKO JARDUERAK.....	17

5. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN BALDINTZA, JARRAIPENA ETA ITZULARAZTEAK.....	18
22. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK PIGNORATZE EDO LAGUNTZA EDO DIRULAGUNTZA GUZTIEN KOBRANTZA LAGATZEA.....	18
23. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAREN JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA EGITEA. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA.....	18
24. ARTIKULUA. ELEMENTU PRIBATIBOAK INTER VIVOS BORONDATEZ XEDATZEAAGTIK, JABEKIDEEN ERKIDEGOARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ITZULARAZTEA.....	18
25. ARTIKULUA. GIZARTE IRIZPIDEENGATIKO LAGUNTZAK ITZULARAZTEA.....	19
26. ARTIKULUA. LAGUNTZAK ITZULARAZTEA ESLEIPEN BIDE GABEEN KASUAN.....	20
6. KAPITULUA. PROZEDURA. DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA ETA ORDAINKETA.....	21
27. ARTIKULUA. ESKAERAK AURKEZTEA: EPEA ETA ERA.....	21
28. ARTIKULUA. AKATSAK EDO HUTSEGITEAK ZUZENTZEA.....	21
29. ARTIKULUA. TRAMITAZIOA, EBAZTEKO EPEA ETA JAKINARAZPENA.....	21
30. ARTIKULUA. ERREKURTSOAK.....	22
31. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK ERALDATZEA.....	22
32. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA.....	23
33. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....	23
34. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.....	25
35. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK ORDAINTEZKO ERA. KONTURAKO AURRERAKINAK.....	26
36. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK ORDAINTEZKO SEKUENTZIA.....	26
37. ARTIKULUA. JASOTAKO DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA.....	27
38. ARTIKULUA. EZ BETETZEA ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAK ITZULARAZTEA.....	27
39. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTEAK ETA ADMINISTRAZIO ZEHAZPENAK. ZIGOR PROZEDURA.....	28
40. ARTIKULUA. ADMINISTRAZIO BIDEAREN BUKAERA ADIERAZTEA.....	28
41. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA.....	28

1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. OINARRI ARAUTZAILEEN XEDEA

Oinarri hauen xedea da Elgoibarko Udalerriko EULOGIO ESTARTA kaleko 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 zenbakietan dauden bizitegiatarako eraikinek, Olasogain (Sigma) auzoan dauden guneez libreez eta, halaber, zaurgarritasun ekonomikoa dela medio norbanakoek lortu ditzaketen laguntza ekonomikoak tramitatzeko eta, hala badagokio, emateko baldintzak koordinatzea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailak Elgoibarko Udalari eman dion zuzeneko dirulaguntzaz baliatuta.

2. artikulua. ARAUDI ERREGULATZAILEA.

Oinarri arautzaile hauetan arautzen diren dirulaguntzak, oinarri horietan xedatzen denaz gain, deialdiaren bidez eta dirulaguntza emateko ebazpenaren bidez arautuko dira, baita honako araudi hauetan ezarritakoaren bidez ere:

- a) 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateratua onartzen duena.
- b) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa
- c) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duena.
- d) 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen.
- e) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren Akordioa, 2022ko abenduaren 27koa, zeinaren bidez, dirulaguntza zuzena ematen baitzaio Elgoibarko Udalari Lurralde Antolamendu, Etxebizitza Sailaren aurrekontuaren kontura. Akordioaren ondorengo aldaketak.
- f) Elgoibarko Udalaren eta Autonomiadun Erakundearen Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorra (25 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2009ko otsailaren 9a).

3. artikulua. OINARRI ARAUTZAILEEN ESPARRUA ETA APLIKAZIOA.

Oinarri arautzaile hauen ezarpen eremua da Udalari emandako zuzeneko dirulaguntza emateko mugatu dena. Dirulaguntza hori ondoren zehaztuko diren Gipuzkoako Lurralde Historikoko Olasogain (Sigma) auzoko bizitegiatarako eraikinen hiri-berroneratze integraleko esku-hartzerako da, eta ERAIKINEN ERABERRITZE SAKONEAN KONTUAN IZAN BEHAR DIREN JARDUERAK izeneko 4. artikuluan garatzen diren baldintzei jarraikiz bideratuko da:

Eulogio Estarta kaleko 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 eta 9 zenbakiak.

4. artikulua. ERAIKINEN ERABERRITZE SAKONEAN KONTUAN IZAN BEHAR DIREN JARDUERAK.

Deialdi honen ondorioetarako, "eraikinen eraberritze sakontzat" hartuko dira ondoren zehaztuko diren jarduerak:

- a) Egituraren eta ikuspegitik egokituta ez dauden eraikinetan, jarduera horien baitan ezinbestean sartu beharko dira Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren txostenak eskatzen eta gomendatzen dituen esku-hartzeak. Esan, txostena teknikari gaituren batek idatzitakoa izan beharko dela; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen 52. artikulua horretara behartzen du, indarrean dauden eredu ofizialen arabera.
- b) Ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuan, Eraikuntza Antolatzeko Legearen 3. artikuluan edo horiek ordezkatzeko dituen araudian eskatuko da eraikinak aipatzen diren beharrezko bizigarritasun baldintzak

betetzen ez dituzten etxebizitzetan eskatuko da eraikinak antolamendu espazial jakin bat eta eraikuntzako ezaugarri jakin batzuk izan ditzala, bizigarritasuna egokitzeko aukera bermatu ahal izateko.

- c) Etxebizitzaren irisgarritasuna bermatzeko jarduerak, hala nola, igogailuak instalatzea, arrapalak exekutatzeko edo/eta, 28/2000 Dekretuaren arabera, irisgarritasun baldintzak (lehentasunezkoa) edo erabilgarritasun baldintzak (irisgarritasuna lortzea ezinezkoa bada) betez, atarietara kaleko mailatik sartzeko baliagarria izan daitekeen beste edozein jardura egitea.
- d) Berotzeko eta hozteko urteko energia eskaera eta, halaber, lehen mailako energia ez berriztagarriaren urteko kontsumoa murriztea, ziurtagiri energetikoari dagokionez, honako irizpide eta helburu hauei jarraikiz.
 - Energiaren eskaera gutxienez % 35 murriztea (Gipuzkoan dauden eraikinak).
 - Lehen mailako energia ez berriztagarriaren kontsumoaren murrizketa optimoa ($\Delta C_{ep,nrenv}$) % 45ekoa edo gehiagokoa izateko ahalegina egingo da neurri pasiboen bidez, eta murrizketa % 60koa edo gehiagokoa izateko esku-hartze osoan. Ez da aukeren barruan sartuko kontsumo horren murrizketak % 30etik beherakoak izatea.

Energia efizientziaren hobekuntzaren egiaztatpena, lehen mailako energia ez berriztagarrien kontsumoa murrizteari, berotzeko eta hozteko eskaera orokorra murrizteari eta kalifikazio energetikoa hobetzeari dagokionez, ex ante nahiz ex post egingo dira, eta horretarako, eraikin edo etxebizitza bakoitzaren energia efizientziari buruzko egiaztagiria, jardura egin aurrekoak eta ondokoak, erkatuko dira.

Egiaztagiri horiek, ekainaren 1eko 390/2021 Dekretuak arautzen dituenak, zeinaren bidez onartzen baita eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura, ofizialki onartutako programa informatikoren bat erabilia egin beharko dira. Egiaztagiri horiek, bestalde, autonomia erkidegoko organo eskudunean erregistratu behar dira, eta teknikari eskudunek eman behar dituzte. Proiektuek etiketatze berdeari eta digitalari eman beharko lizkioketen ehunekoak jaso beharko dira, eta justifikazio agiriak bidali beharko dira, garrantzia emanda Europako eta Estatuko araudia betetzeari.

Nahitaez esku-hartu beharko da lehen mailako energia ez berriztagarriaren kontsumoa % 30 edo gehiago murrizteko beharrezkoak diren eraikinaren inguratzailaren elementu guztietan (fatxadak, teilatuak, hegalkinak, patioak...). Ezin izango dira aukeratu eraikin bereko etxe edo lokal batean edo batzuetan egiten diren jarduerak, baldin eta banaka kontuan hartzen badira.

Azken lau urteetan, hau da, 2022ko martxoaren 29tik aurrera, energia efizientzia hobetzeko esku-hartzeak egin diren eraikinak, non egiaztatu ahal izango baita berotzeko eta hozteko urteko energia eskari orokorra arestian ezarritako ehunekoan edo ehuneko handiago batean murriztu dela, salbuetsita egongo dira berotzeko eta hozteko urteko energia eskari orokorra murrizteko baldintza betetzetik.

Esku hartze horietan ezarritako murrizketa edo ezarritakoa baino handiagoa lortzen ez baldin bada, uste izango da baldintza bete dela, baldin eta, arestiko esku-hartzeetan egindako jardura guztiak eta eskaeraren xede den jarduran egingo direnak kontuan hartuta, eskaera murrizteko dagokion ehunekoa lortzen bada. Hori energia efizientziari buruzko egiaztagiriaren bitartez egiaztatuko da.

Kalifikazio energetikoan lortutako datu hauek lortu ahal izango dira arestian adierazitako jardura eginda, edo jardura osoa edo partziala honako hauekin konbinatuta:

- 1) Baoak eta inguratzaila termikoaren elementu opakoekiko elkarguneak aldatzeko edo ordeztzeko jarduerak, haien ezaugarriak Eraikuntzako Kode Teknikoko DB HEko 3.1.1.a –HE1 y 3.1.3.a – HE1 tauletan ezarritako transmitantzia termikoko eta airearekiko iragazkortasuneko mugako balioetara egokitzeko, hala dagokionean.
- 2) Dauden banakako galdaren ordeztze, errendimendu handiko beste batzuk jartzea. Erregai fosilak erabiltzen ez dituzten ekipamenduak instalatzea sustatuko da.

- 3) Biomasa galdara duten berokuntzako edo ur bero sanitarioko sistema zentralizatuak edo energia berriztagarrien (EEBB) beste sistema batzuk instalatzea, hain zuzen, banakako kontsumoak kontrolatzeko banaketa dutenak.
- 4) Eraikinean Energia Elektriko Fotovoltaikoa ekoizteko sistemak instalatzea, autokontsumo partekaturako erkidegoak edo tokiko energia erkidegoak eratuta.
- 5) EEBBak sortzeko beste edozein sistema instalatzea.
- e) Etxebizitzaren portaera energetikoa eta airearen kalitatea monitorizatzea eta haien jarraipena egitea.
Bizigarritasun baldintzak hobetzeko neurrien eta jardueren efikazia eta efizientzia egiaztatzeke, tenperaturaren, hezetasun erlatiboaren, CO₂ mailaren baldintzak monitorizatu dira, eta, instalazioak horretarako bide ematen duenean, ekoizpen termikoko sistemaren kontsumoa ere bai. Monitorizazio hau ahalik eta etxe gehienetan egingo da, prozesua hasi (obrak exekutatu baino lehen) eta obrak bukatu eta hurrengo bi urteetan. Instalazioaren ustiapenak eta zerbitzuak dirauen bitartean, datuak neurtzeko beharrezkoak diren ekipamenduak Lurralde Antolamendu eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak (DPTAU) definitutakoak izango dira. Ekipamenduek, behin instalatuta, neurtutako datuen irakurketa bidaliko dute Eusko Jaurlaritzaren zerbitzarietara, neurtzeko eta ustiatzeko, eta, horretarako, oinarri hauetan aurreikusitako laguntzen onuradun diren etxebizitzaren onuradunek berariaz baimenduko dute datu horiek hartzea adierazitako xedeetarako.
- f) Saneamendurako, ura hornitzeko, elektrizitaterako, telekomunikazioetarako, gaserako eta eraikinetako suteen aurkako segurtasunerako instalazioak araudiari egokitzea eta eguneratzea.
- g) Amianto hondakinak kentzea, manipulatzeko, garraiatzea eta kudeatzea enpresa baimenduen bidez, hala badagokio.

Arestian adierazitako jarduerak proiektu tekniko bakar baten barruan sartu beharko dira. Proiektua batera egingo da haien guztientzat; hala eta guztiz ere, onartu ahal izango da txostenean jarduera haietakoren bat ez agertzea, baldin eta eraikinak, txostena idazteko unean, baldintzak betetzen baditu eta hori txostenean behar adina justifikatzen bada.

Nolanahi ere, eraberritze jarduerak bat etorri beharko dira aplikagarriak diren hirigintzako planen zehaztapenekin, eta beharrezkoak diren administrazio baimenak lortu eta EJR-en eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

Dagozkion laguntzak izendatzeko eta, ondoren, haien justifikazioa egiteko, proiektuak kapituluaren eta azpikapituluen arabera egituratu beharko dira, hain zuzen ere, ondoren ageri den 01 Taularen arabera.

JARDUERA
MONITORIZAZIOA, BEZa SARTUTA
ITEak eta/edo ERAIKINAREN LIBURUA, BEZa SARTUTA
AUDITORIA ENERGETIKOA, BEZa SARTUTA
AURRETIAZKO AURREPROIEKTUAK, BEZa SARTUTA
AURRETIAZKO BESTELAKO LANAK, BEZa SARTUTA (txostenak, azterketa geoteknikoak, ...)
AURRETIAZKO LANAK GUZTIRA
ENERGIA PASIBOAK, BEZa SARTUTA (INGURATZAILEA+ %C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+ % M.Aux)
ENERGIAK. AROTZERIAK, BEZa SARTUTA (Arotzeria+ %C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+ % M.Aux)
ENERGIA AKTIBOAK, BEZa SARTUTA (Galdarak+ %C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+ % M.Aux)
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK, BEZa SARTUTA (FOTOVOLTAIKOA+ %C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+ % M.Aux)
ENERGIA EFIZIENTZIA GUZTIRA
AMANTOA KENTZEA, BEZa SARTUTA
AMANTOA KENTZEA GUZTIRA
ENERGIA ERKIDEGOAK
ENERGIA BERRIZTAGARRI KOLEKTIBOAK GUZTIRA
ERABERRITZEAGATIKO ORDAINSARIAK, BEZa SARTUTA (proiektua +D.F.) (Aurreko kapituluaren parte proportzionala)
ERABERRITZE ENERGETIKO EFIZIENTEAREN ORDAINSARIAK GUZTIRA

IRISGARRITASUNA, BEZa SARTUTA (Igogailuak, arrapalak ...+%C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+% M.Aux)
IRISGARRITASUNA GUZTIRA
SUTEEN AURKAKO BABESA, BEZa SARTUTA
INSTALAZIOAK EGUNERATZEA, BEZa SARTUTA
BIZIGARRITASUNA, BEZa sartuta
BESTELAKO ESKU-HARTZEAK, BEZa SARTUTA (IT Eren gainerako obrak sartuta+%C. Cal.+ %Resid.+ % Segur.+% M.Aux)
OBRA OSAGARRIAK GUZTIRA
ERABERRITZEAGATIKO ORDAINSARIAK, BEZa SARTUTA (proiektua +D.F.) (Aurreko kapituluaren parte proportzionala)
ERABERRITZEAREN ORDAINSARIAK GUZTIRA
GUZTIRA

01 taula, Proiektuaren kapituluak eta azpikapituluak

5. artikulua FINANTZAZIOA, AURREKONTUKO KREDITUAK ETA OINARRI HAUETAKO DIRULAGUNTZEN GUZTIZKO GEHIENEZKO ZENBATEKOA

Oinarri hauen zuzkidura ekonomikoa bat dator "Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren Akordiotik" datorrenarekin. Akordio horren bidez 3.094.758,70 €-ko kopuru orokorra duen zuzeneko dirulaguntza eman zaio Elgoibarko Udalari, honako urteroko hauen arabera:

	2023 10% + 20%	2024 20%	2025 50%	GUZTIRA
Eraikinaren eraberritze sakona	867.848,73 €	578.565,82 €	1.446.414,55 €	2.892.829,10 €
Beste hainbat kontzeptu	60.578,88 €	40.385,92 €	100.964,48 €	201.929,60 €

02 Taula. Dirulaguntzaren kopuru orokorra

Eraikinen hiri-berroneratzerako eta eraberritzerako jardueren baitan, eraikinak eraberritzeko bideratuko den zenbatekoa 2.892.829,10 eurokoa izango da.

Laguntzen eskaerak exekutatzeke gehienezko epea oinarri hauetan aurreikusitakoa izango da, eta **esku-hartzeak exekutatuta egongo dira, gehienez ere, 2025eko azaroaren 30erako.**

6. artikulua. LAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA

Udalaren laguntza hau lehiaketarik gabeko norgehiagoka araubidearen eta banakako ebaluazioaren sistemaren bitartez emango zaio jabekideen erkidego eta bizikidetzaren unitate bakoitzari, OINARRI ARAUTZAILEEN XEDEA izeneko 1. artikuluan adierazitako eraikinen kasuan.

II KAPITULUA. ONURADUNEN, ESKU-HARTZEN DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUEN ETA ERAIKINEN BETEBEHARRAK

7. artikulua. LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEAK

Hona hemen laguntzen azken hartzaileak izan daitezkeenak:

- Bizitegi kolektiboen tipologiako eraikinen eta bertako etxebizitzaren jabek eta haien usufruktua dutenak, bai pertsona fisikoak, bai izaera pribatuko edo publikoko nortasun juridikoa dutenak.
- Norbanakoentzako laguntzen kasuan, jabeak eta usufruktua dutenak.
- Etxebizitzaren jabeak eta maizterrak adosten baldin badute, errenta ordaintzearen truk, maizterra izango dela bere kontura dagozkion eraberritze jarduerak ordainduko dituenak, maizterrak jabekideen

erkidegoari, edo hala badagokio, jabe bakarrari eskatu ahal izango dio laguntza hauek eskatzeko beharrezkoa den erabakia hartu dezala. Kasu honetan, maizterra azken hartzailetzat jo ahal izango da.

- d) Jabekideen erkidegoak edo jabekideen erkidegoaren elkarteak, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikulua arabera, edo bestela, aplikagarriak diren foru arauen arabera eratuta daudenak.
- e) Taldeka eraikinen jabe diren jabeak, baldin eta Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta jabetza horizontala eratzen duen titulua emana ez badute.

Jardueraren exekuzioa azken hartzaile bat baino gehiagoren kontua bada, laguntza modu proportzionalan banatuko da, bakoitzak onartu duen kostuaren eta erantzukizunaren arabera.

Azken hartzaileek, edo hala badagokio, haien izenean diharduen eraberritzearen eragileak edo kudeatzaileak laguntzaren guztizko zenbatekoa bideratuko dute dagozkion jarduerak ordaintzeko.

Jabekideen erkidegoen eta jabekideen erkidegoen elkarten kasuan, arau hau modu berean aplikatuko da, bai laguntzaren zenbatekoa, bai obren kostua, etxebizitzaren jabeak, eta hala badagokio, merkataritzako lokalen edo bateragarriak diren beste erabilera batzuetako onibarren jabeak egotzi behar zaizkien kontuan izan gabe, jabetza horizontalari buruzko legedian aurreikusitako arauen arabera.

Arestiko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jabekideen erkidegoa edo jabekideen erkidegoen elkarteak kideren batek, legeko arazoaren bat tarteko dela, laguntza jaso ezin badu, ez jaio jabe edo usufruktudun horri egotziko jasotako laguntzatik dagozkion zati proportzionala, eta hori erkidegoa edo elkartea osatzen duten gainerako kideen artean hainbanatuko da.

8. artikulua. LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntza eskaerak egin aurretik edo egiten direnean, eskaera horiek egiteko eskatzen zaizkien dokumentazioa gorabehera, oinarri hauetako DIRULAGUNTZA ESKATZEKO AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOARI buruzko 33. artikuluan jasotzen den moduan, laguntzen onuradunek eta azken hartzaileek, gainera, ondoren zehaztuko diren betebeharrak izango dituzte. Hori dela eta, behartuta egongo dira honako jardura hauek egitera eta Udalari honako dokumentazio hau aurkeztera, Udalak EJKo Lurralde Antolamenduko eta Hiri Agendako Zuzendaritzara helarazteko:

- a) Azken hartzaileak dirulaguntzaren onuraduntzat hartuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 14ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharren ondorioetarako, eta egiaztatu egingo dute ez daudela sartuta, dirulaguntzen onuradun izateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2. artikuluan aurreikusitako debeku batean ere.
- b) Azken hartzaileak pertsona juridikoak baldin badira, eskaeran egiaztatu egin beharko dute edo berariaz adierazi beharko dute behar bezala eratuta daudela, aplikagarria zaizkien araudiaren arabera. Izaerarik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talde publiko edo pribatuen kasuan, jabekideen erkidegoen kasuan izan ezik, berariaz jaso beharko dira, bai eskabidean, bai dirulaguntza emateko ebazpenean, taldeko kide bakoitzak bere gain hartu dituen konpromisoak, baita bakoitzari ezarri beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere. Edonola ere, taldeak ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko du, eta hark askietsitako ahalmenak izango ditu.
- c) Azken hartzaileak pertsona fisikoek edo pertsona fisiko batek baino gehiagok osatutako bizikidetzak unitateak baldin badira, beharrezkoa den informazioa eman beharko dute, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari (PFEZ) buruzko zerga-egiaztagiriaren bitartez, haien diru-sarrerak zehazteko.
- d) Dirulaguntza onartzeko arrazoi izan daitekeen edo izan den eta laguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekar dezakeen baldintzaren bat aldatu baldin bada, azken hartzaileak behartuta egongo dira tramitazio hori egiten ari den edo dirulaguntza onartu duen Udalari berehala, edo eskaera tramitatzen ari den bitartean, horren berri ematera. Aldaketa hauek aditzera ez ematea nahikoa arrazoi izango da, bidegabeki kobratu ahal izan diren zenbatekoak itzularazteko espedienteak abian jartzeko.

- e) Udalari, dirulaguntza ematen duen Administrazio den aldetik, nazio mailako edo nazioarteko beste edozein Administrazioetatik edo erakunde publikotatik lortzen diren beste dirulaguntza edo laguntza batzuen berri ematea, kostu beraren gaineko gainfinantzaziorik egon ez dadin.
- f) Eusko Jaurlaritzak, bai Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Garraio Sailaren, bai Opengelaren, bai Inbertsio Estrategikoetarako 2022-2024ko Erakunde Arteko Planaren bitartez eman dituen laguntzak komunikatzeko esparruaren baitan ezarritako komunikazio baldintzak betetzea.
- g) Jabetzaren erregistroan orri bazterreko ohar bat inskribatzea Jabekideen erkidegoak jaso dituen laguntzetan jabekideen erkidegoko elementu bakoitzak izango duen partaidetzari dagokion zenbatekoarekin, zeina Udalari itzultzeko betebeharra izango baitu, intervivos transmisioaren bat egiten baldin bada, oinarri hauetako 24. artikuluan –JABEKIDEEN ERKIDEGOARI EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULARAZTEA ELEMENTU PRIBATIBOAK INTERVIVOS BORONDATEZ BALIATZEAGATIK- adierazita dagoenaren arabera.
- h) Jabetzaren erregistroan orri bazterreko ohar bat inskribatzea gizarte irizpideengatik jaso diren zenbatekoekin dagokion zenbatekoarekin, zeina Udalari itzultzeko betebeharra izango baita, intervivos transmisioaren bat egiten baldin bada, oinarri hauetako 25. artikuluan –GIZARTE IRIZPIDEENGATIK EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULARAZTEA- adierazita dagoenaren arabera.

Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kasu guztietan, programako laguntza emateko ezarri den baldintzaren bat ez betetzea jasotako zenbatekoak itzularazteko eta dirulaguntza ordaindu den unetik aurrerako berandutza interesak eskatzeko arrazoi izango da, eta, horrela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluko II. kapituluan, dirulaguntzak itzularazteko araututa dagoen prozedura ezarriko da

9. artikulua. PARTE HARTZEN DUTEN BESTELAKO ERAKUNDEAK

Oinarri hauen ondorioetarako, “Parte hartzen duten bestelako erakundetzat” hartuko dira izaera pribatua, publikoa edo mistoa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak, baldin eta Elgoibarko Udalak, laguntzak ematen dituen administrazio den aldetik eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko eta Hiri Agendako Zuzendaritzarekin ados egonik, eskumen batzuk ematen badizkie laguntzak sustatzeko, garatzeko, tramitatzeko, kudeatzeko, onuradunei laguntzeko edo haien helburuak lortzen laguntzeko beste edozertarako.

Bereziki, honako hauek hartuko dira esparru honetan “Parte hartzen duten bestelako erakundetzat:

- a) **“Kudeaketa Batzordeak”** oinarri hauetako KUDEAKETA BATZORDEAK izeneko 10. artikuluan adierazitakoaren arabera.
- b) **“Hurbileko Kudeaketarako Bulego Teknikoa”**, “leihatila bakarra motako eraberritze bulego” bat ezartzeko.

Hurbileko Kudeaketarako Bulego Teknikoak (OTGP) norbanakoekin lankidetzan jardungo du dirulaguntza horiek eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioa prestatzeko, Oinarri hauen eta “Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren 27an eman zuen Akordioaren” arabera, zeinaren bidez Udalari zuzeneko dirulaguntza eman baitzitzaion.

10. artikulua KUDEAKETA BATZORDEAK

Proposatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren lan teknikoen eta obren kontratazio guztietan eskatu behar den gardentasuna bermatzeko, Lantaldeak sortuko dira, oinarri hauetan Kudeaketa Batzorde moduan izendatuko direnak. Batzorde horiek Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko eta Hiri Agendako zuzendaritzako ordezkari batek, Udaleko ordezkari batek –DEBEGESAko ordezkari batek lagundurik- eta Jabekideen Erkidegoetako ordezkari batek osatuko dituzte.

11. artikulua. ERABERRITZEAREN XEDE DIREN ERAIKINEN BALDINTZAK.

Eraikinek, zeintzuentzat eskatuko baita programa honetako finantzazioa, honako baldintza hauek bete beharko dituzte, baldintza horiek beharrezkoak baitira diruz lagundu daitezkeen jardueren exekuzioa justifikatzeko:

a) Egingo diren jardueren buruzko proiektua edukitzea.

Proiektuaren baitan eraikuntzako eta eraisketako hondakinak kudeatzeko azterketa bat egingo da gerora, hain zuzen, eraikuntzako eta eraisketako hondakinak kudeatzeko planaren baitan, eraikuntzako eta eraisketako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera, non honako baldintza hauek beteko baitira:

1. 2000/532/EC Erabakian ezarritako hondakinen Europako Zerrendaren 17 05 04 kategorian aipatutako materiala izan ezik, gutxienez, arriskutsuak ez diren eta eraikuntza tokian sortu diren eraikuntzako eta eraisketako hondakinen % 70 (pisua) birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, baita beste material batzuen ordez hondakinak erabili dituzten betelanak ere, Europar Batasuneko hondakinen hierarkiaren eta eraikuntzako eta eraisketako hondakinak kudeatzeko Protokoloaren arabera. Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren 21/67 orrialdea.
2. Operadoreek mugatu egin beharko dute eraikuntzarekin eta eraisketarekin zerikusia duten hondakinen sorrera, EBko eraikuntzako eta eraisketako hondakinak kudeatzeko protokoloari jarraikiz, eta eskura dituzten teknikarik onenak kontuan hartuta eta eraisketa selektiboa baliatuta. Substantzia arriskutsuak desagerrarazi eta segurtasunez manipulatu ahal izateko, eta kalitatezko berrerabilera eta birziklapena errazteko, materialak gaika ezabatuko dituzte, eraikuntzako eta eraisketako hondakinentzat eskuragarri dauden sailkapen sistemak erabilita. Era berean, ezarriko da eraisketa, nagusiki, modu selektiboan egitea, eta sailkapena, batez ere, hondakinak sortzen diren lekuan egingo da.

Proiektuaren baitan kalitatea kontrolatzeko programa bat jasoko da, gerora, kalitatea kontrolatzeko kudeaketa planean egingo dena, eraikuntzako kalitatearen kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuan ezarritakoaren arabera, non, esku-hartze berrientzat, honako baldintza hauek jasoko baitira berariaz; ez, ordea, eskusiboki:

1. Esku-hartzeak egin aurretik eta ondoren, termografia kualitatiboak egingo dituzte horretarako kreditatuta dauden langileek.
2. Erabiliko den fatxadako isolamenduaren euskarriaren gainean (SATE edo fatxada aireztatua) trakzioari eta eusteko ahalmenari buruzko saiakuntzak egingo dira. Isolamendu-sistemak eta hura obran jartzeko sistemak erabilitako produktuaren edo sistemaren fabrikatzaileak emandako egokitasun-ziurtagiria izan beharko du.
3. Arotzeriek eta kristalek airearen iragazkortasunari, uraren estankotasunari eta airearekiko erresistentziari buruzko saiakuntzak izan beharko dituzte eta, halaber, ezaugarriei, emaitzei eta transmitantziari buruzko egiaztagiria izan beharko dituzte.

b) Eraikinen diseinuak eta eraikuntza teknikak

Eraikinek eta teknikak zirkulartasuna bultzatuko dute, eta, bereziki, ISO 20887 edo eraikinak desmuntatzeko edo egokitzeko ahalmena ebaluatzeko beste arau batzuei dagokienez, erakutsiko dute nola diseinatuta dauden baliabideak erabiltzerakoan eraginkorrak, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko eta erabili eta birziklatu ahal izateko.

c) Jardueraren xede den eraikinetik amiantoaren dute eraikuntzako produktuak kentzea.

Produktu horiek martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kendu beharko dira, zeinaren bidez ezartzen baitira lege baimendutako enpresaren batek amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu behar dizkien gutxienezko segurtasun eta osasun xedapenak. Prozesuan sortzen

diren hondakinak eraikuntzako eta eraisketako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

Era berean, bizitegi kolektiboaren tipologiako eraikinen kasuan honako hau bete beharko da:

- 1) Gutxienez, sestra gainean dagoen azalera eraikiaren % 50 etxebizitza erabilerakoa izan beharko da, beheko solairua edo solairuak izan ezik, baldin eta beste erabilera bateragarri batzuk badituzte.
- 2) Jarduerak egiteko kasuan kasuko jabekideen erkidegoaren edo behar bezala elkartutako jabekideen erkidegoen akordioa izatea, jabe bakarreko eraikinen kasuan izan ezik, eta, halaber, beharrezkoa denean, dagozkion baimen administratiboa edo administratiboak izatea.

12. artikulua. KOMUNIKAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO BALDINTZAK

Oinarri hauei jarraikiz eman diren laguntzen kudeatzaileek nahiz onuradunek eta laguntzen xede diren jardueri buruz edozein hedabidetan egiten diren aipamen guztiek honako eskuliburu hauetan zehaztutakoa bete beharko dute:

- “Euskadiko identitate bisualaren eskuliburua”.
- Opengela programako “Erakunde irudiaren eskuliburua”.

Horretaz gain aldi baterako kartel bat instalatu eta eduki beharko da obrak dirauen bitartean, herritar guztiek ikus dezaketen ageriko leku batean, proiektua dagoen lekuan. Kartela, nagusiki, eraikinaren fatxada estaltzen duen instalazioan edo aldarnioan jarriko da, nolahi ere, dagozkion udal ordenantzetan xedatutakoaren arabera. Kartelak ongi ikusi eta irakurtzeko moduko tamaina izan beharko du, eta bertan argi eta garbi ageriko dira programaren titulua eta Programaren izendapena eta irudia. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzak emandako laguntza ekonomikoa aipatu beharko da. Zabalkunderako egiten diren kartelaren eta euskarrien diseinu grafikoak bete egin beharko du Eusko Jaurlaritzak arestian adierazitako eskuliburuetan ezartzen dituen baldintzak.

Hala badagokio, gehigarri gisa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritakoa bete beharko da, Oinarri hauen xede diren laguntzen publizitatearen betebeharrei

13. artikulua. LANAK ESLEITZEKO PROZEDURA.

Egin ez diren jarduerak diruz laguntzen diren kasuetan, eta erkidegoek birgaitze eraginkorraren proiektuaz eta obra-zuzendaritzaz arduratuko den talde tekniko edo obrak egingo dituen enpresa kontratatu aurretik, lehiaketa bat egingo da, eta gutxienez hiru lizitatzailer onartuko dira, Kudeaketa Batzordearen erabakiz. Era berean, beharrezkoa den beste edozein lan esleitzeko eta obrak egiteko ere erabiliko da. Kudeaketa Batzordea izango da lehiaketa hori egiteko prozedura zehatza (epea, aurkezteko era, e.a.) finkatuko duena. Jabekideen erkidegoak eta dirulaguntzen onuradunak behartuta egongo dira prozedura hori orpo orpo errespetatzera, eta hori laguntza jasotzeko ezinbesteko baldintza izango da.

Batzorde Kudeatzaileek, kasu bakoitzean, Bulego Teknikoak eta Hurbiltasuna Kudeatzeko Bulegoak egindako baremoak baliozkotuko dituzte, profesional, talde tekniko edo enpresa lizitatzailer eskaintzak ebaluatzeko. Ondoren, proiektua idazteko, obrak zuzentzeko edo obrak gauzatzeko lehiaketa-faseen ondoren baremo horiek aplikatzearen ondorioz, Hurbiltasuna Kudeatzeko eta Bulego Teknikoak (aurrerantzean, OTGP) lan bakoitzaren Esleipen Proposamenaren Txostena egingo du, eta Kudeaketa Batzordeak baliozkotuko du.

Kasuren batean zalantza eta/edo desadostasunak sortzen badira baremoaren aplikazioaren emaitzen interpretazioan edo dagokion esleipen-proposamenaren txostenaren idazketan, Kudeaketa Batzordearen botoen gehiengo lortzen duen lizitatzaileraren aldeko erabakia hartuko da.

Esleipenaren azken proposamena onartu eta berretsi egin beharko da, oinarri hauetan jasotako laguntzak eskuratu nahi dituen jabekideen erkidego bakoitzeko organo eskudunak onetsita. Jabekideen Erkidegoak



berretsi eta onartu ezean, edo Kudeaketa Batzordeak baliozkotutako proposamenaz bestelakoa bada hark hartutako kontratazio-erabakia, Jabekideen Erkidegoak ez ditu oinarri hauetan jasotako laguntzak eskuratuko, eta aurretik jasotako laguntza guztiak itzuli beharko ditu, salbu eta, Kudeaketa Batzordearen iritziz, proposamenaren desbideratze hori behar bezala egiaztatuta dagoela justifikatzen bada.

III. KAPITULUA. OINARRI HAUEN BIDEZ DEITUTAKO DIRULAGUNTZAK

14. artikulua. DEIALDIKO DIRULAGUNTZEN JATORRIA

Oro har, 5. artikuluan (FINANTZAKETA, AURREKONTU-KREDITUAK ETA OINARRI HAUETAKO DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKOA) adierazi den eta indarrean dagoen aurrekontuan gaitutako partida izango da dirulaguntza hauen muga.

Oinarri hauek arautzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 27ko Erabakian jasotako dirulaguntzak izapidetzeko eta, hala badagokio, emateko baldintzak. Erabaki horren bidez, zuzeneko dirulaguntza ematen zaio Elgoibarko Udalari, eta ebazpen horretan jasotako jardueretarako erabiliko da. 853/2021 Errege Dekretuaren 1. programaren aplikazioan jasotako birgaitze energetiko eraginkorreko laguntzak eskuratu ahal izango balira, programa horri dagozkion laguntzak horien gainetik lehenetsiko lirateke.

4. artikuluan (ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN AINTZAT HARTU BEHAR DIREN JARDUERAK) definitutako Birgaitze Sakoneko izaera lortzeko beharrezkoak diren esku-hartzeetara bideratzen dira nagusiki.

15. artikulua. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GASTUA ETA DIRULAGUNTZEN GEHIENEZKO ZENBATEKOA

Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa zehazteko, garatu beharreko jardueren kostu osoa hartuko da kontuan, hurrengo puntuetan ezarritako zenbatekoak finkatzeko irizpideen arabera. Beraz, diruz lagun daitezkeen jardueren artean sartu ahal izango dira jarduera bakoitza garatzeko beharrezkoak diren gastuak, honako hauek barne:

- Eraberritze sakona egiteko obren kostu zuzenak eta zeharkakoak, osorik edo partzialki egotz daitezkeenak, oinarri hauen 4. artikuluan ezartzen denaren arabera.
 - ITEk eskatutako eta gomendatutako esku-hartzeak.
 - Beharrezkoa den bizigarritasunaren egokitasuna lortzeko esku-hartzeak.
 - Etxebizitzen irisgarritasuna bermatzeko esku-hartzeak.
 - Berokuntzarako eta hozketarako urteko energia eskari orokorra eta energia primario ez berritzagarriaren kontsumoa murrizteko esku-hartzeak.
 - Etxebizitzen portaera energetikoa eta airearen kalitatea monitorizatzea eta horren jarraipena egitea.
 - Eraikina araudiari egokitzea eta saneamenduaren, ur horniduraren, energia elektrikoaren, telekomunikazioen, gasaren eta eraikinetako suteen aurkako segurtasunaren instalazioak eguneratzea.
 - Enpresa baimenduek amianto hondakinak kentzea, manipulatzeko, garraiatzea eta kudeatzea. Horretaz gain, kalitatearen kontrolerako, hondakinak kentzeko, garraiatzeko eta kudeatzeko, erabilitako bitarteko lagungarriei buruzko, eta abarrei buruzko esku-hartzeak sartuko dira.
- Esku-hartzen duten profesionalen ordainsariak, proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko ordainsariak eta ziurtagiri eta txosten teknikoak.
- Eraikinaren Liburua eta, hala badagokio, EITa egitea. Eraikinaren Liburua birgaitzeko dagoen eraikinaren liburua egiteko gidara egokitu beharko da. MITMAko Hiri Agenda eta Etxebizitzako Idazkaritza Nagusiak 2021eko azaroan egindako 853/2021 Errege Dekretuaren I. eranskina justifikatzeko jarraibideak, gomendioak, aholkuak eta adibideak.
- Okupatzaileei aldi baterako beste bizileku bat ematea, gizarte-laguntza ematea eta antzeko beste jarduera batzuk, bidezkoak diren jarduketekin lotuta.

- BEZa edo zeharkako zerga baliokidea, baldin eta, osorik edo zati batean, berreskuratzerik edo konpentsatzerik ez badago.
- Jardueren eta loturiko gastuen bilakaerari dagokion kudeaketa, baita tramitazio administratiboaren ondorioz izango diren gastuena ere (erkidegoen administrazioa sartuta egongo da).

Baimenei, tasei eta BEZaz bestelako zerga edo zergeri dagozkienak ez dira diruz lagunduko.

Eraikin bakoitzeko emango den dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango ditu muga hauek gainditu:

- taulan ezarritako gehienezko ehunekoa diruz lagundu daitezkeen zenbatekoekin biderkatu ondoren lortzen den zenbatekoa.
- Etxebizitza bakoitzeko laguntzaren gehienezko zenbatekoa, arestiko 3. taulan ezartzen dena, eraikineko etxebizitza kopuruarekin biderkatu ondoren lortzen den zenbatekoa. Hala badagokio, sestra gainean eraikitako merkataritza lokalen edo etxebizitzak ez diren beste erabilera batzuen metro koadro eraiki bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa gehituko da, jardueraren bidez, energia primario ez berriztagarriaren kontsumoan lortuko den aurrezpen mailaren arabera. Sestra gaineko merkataritza-erabilaren edo beste erabilera batzuen metro koadro bakoitzeko ezarri den zenbatekoa konputatu ahal izateko, beharrezkoa izango da dagozkien onibarrek jardueraren exekuzio kostuetan parte hartzea.

Eraikinean lortutako aurrezki energetikoa	Dirulaguntzaren gehienezko ehunekoa	Etxebizitzak			Merkataritzako lokalak edo bestelako erabilerak
		Laguntzaren gehienezko zenbatekoa etxebizitzako	Gizarte irizpideengatiko laguntzaren gehienezko zenbatekoa etxebizitzako	Gizarte irizpideengatiko laguntzaren gehienezko zenbatekoaren gehikuntza etxebizitzako	Laguntzaren gehienezko zenbatekoa m ² -ko
$30\% \leq \Delta C_{ep,nrenv} < 45\%$	40%	15.140 €	37.850 €	22.710 €	72 €
$45\% \leq \Delta C_{ep,nrenv} < 60\%$	65%	27.103 €	41.697 €	14.594 €	130 €
$\Delta C_{ep,nrenv} \geq 60\%$	70%	35.000 €	50.000 €	15.000 €	192 €

3. TAULA

Eskaerak aurkezteko epea igaro ostean, laguntzak berriz kalkulatu dira, dirulaguntza agortu arte, epearen barruan aurkeztu eta onartu diren eskaeren artean. Horrela, bermatu egingo da ez dela gaindituko kostuaren 100 %, gainfinantzaziorik egon ez dadin.

Hurbileko Kudeaketarako Bulego Teknikoak (OTGP) norbanakoekin lankidetzan jardungo du dirulaguntza nagusi hauek eskatzeko, tramitatzeko eta dirulaguntza horien emakida kudeatzeko, Oinarri hauen arabera.

Atal honetako hurrengo puntuetan zerrendatutako jarduera guztietarako laguntza-eskaeretan, jarduketan kostuaren eta zenbatekoaren gaineko ehunekoa adieraziko dira. Era berean, OTGPk, leihatila bakarraren funtzioa betez, laguntza horien tramitazioa eta helburu bera duten eta horiekin bateragarriak diren beste laguntza batzuen tramitazioa koordinatuko ditu. OTGPk dokumentu bat egingo du, onuradunek eskatu dituzten edo eskatu dituzten laguntza guztien zerrenda, ehunekoa eta zenbatekoak jasoko dituen, finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko eta eman daitezkeen dirulaguntza guztiek jarduera horien kostuaren % 100 ez gainditzeko.

16. artikulua. AHULTASUN EKONOMIKOKO EGOERAN DAUDEN PERTSONA FISIKOENTZAKO EDO BIZIKIDETZA-UNITATEENTZAKO LAGUNTZA GEHIGARRIAK

Bulego Teknikoa eta Hurbiltasuna Kudeatzeko Bulegoa elkarlanean arituko da partikularrekin eta jabeen erkidegoekin, oinarri hauen arabera laguntza horiek ematea eskatzeko behar den dokumentazioa prestatzeko.

Onuradunak pertsona fisikoak edo hainbat pertsona fisikok osatutako bizikidetza-unitateak badira, atal honetan ezarritakoaren arabera kalkulatu dira pertsonaren edo unitatearen diru-sarrerak, ahultasun ekonomikoko arrazoiengatik laguntzaren osagarria lortzeko balorazioa egin ahal izateko.

Bizikidetza-unitate kalteberen kasuetarako etxebizitza bakoitzeko eman beharreko laguntza handitzeko eskaera aparteko espediente batean egingo da pertsona edo bizikidetza-unitate onuradun bakoitzarentzat. Eskaera horretan, jarduketaren kostuaren eta zenbatekoaren gaineko ehunekoa adieraziko da. Era berean, OTGPk, leihatila bakarraren funtzio betez, laguntza horien izapidetzea koordinatuko du, helburu berarekin horiekin bateragarriak diren beste laguntza batzuekin batera.

Definitutako bizitegi-ingurunean sartutako etxebizitzaren jaberaren, gozamenaren edo bizikidetza-unitateren bat ahultasun ekonomikoko egoeran dagoela identifikatzen bada, laguntza gehigarri bat eman ahal izango da, bizikidetza-unitate horri egotz dakioken jarduketaren kostuaren % 100era artekoa, baina ezingo ditu gainditu Kalteberentzako gehieneko laguntza (% 100) zutabearen kontzeptu bakoitzerako 2., 3. eta 4. tauletan aurreikusitako zenbatekoak.

Pertsona edo bizikidetza-unitate bakoitzerako, jarduketei dagozkien laguntza guztien gehieneko ehunekoa eta/edo zenbatekoa zehaztuko da, honako hauen arabera:

- Eraikinean lortutako aurrezpen-maila lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoan.
- Pertsona fisikoaren edo bizikidetza-unitatearen diru-sarrera gordinak. Honako hauek dira diru-sarrera gordinak: Foru Aldundiak jaulkitako PFEZaren zerga-oinarri orokorrak eta aurrezki-oinarriak, lan-etekinak eta atxikipenak; edo, halakorik ezean, Gizarte Segurantzak edo beste erakunde eskudun batzuek ordaindutako langabezia-prestazioak, pentsioak edo bestelako diru-sarrerak.
- Bizikidetza-unitateko kideen kopurua.

Portzentaje edo/eta gehieneko zenbateko hori honela ezarriko da:

- a) Lehen mailako energia ez berriztagarrien kasuan, **$\Delta C_{ep,nren} \geq 30\%$ eta $< 45\%$ aurretzen bada**, 37.850,00 € gehieneko laguntzaren 100a izango dela kontuan izanik guztizko ehunekoen eta gehieneko zenbatekoen 4.taula ezarriko da.

% AYUDAS e IMPORTE MAXIMO SEGÚN NIVELES DE RENTA Y MIEMBROS DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL 30% ≤ $\Delta C_{ep,nren}$ < 45%						
INGRESOS BRUTOS	Miembros Unidad Convivencial					
	1		2		3 o Más	
	%	Máximo	%	Máximo	%	Máximo
Menos de 15000 €	100%	37.850	100%	37.850	100%	37.850
15.000 €-18.000 €	80%	30.280	100%	37.850	100%	37.850
18.000 €-25.000 €	60%	22.710	70%	26.495	100%	37.850
≥25.000 €	40%	15.140	40%	15.140	40%	15.140

4. taula

- b) Energia ez berriztagarren kontsumoaren kasuan, $\Delta\text{Cep},\text{nren} \geq 45\%$ eta $< 60\%$ aurrezten bada, eta kontuan izanik 41.697,00 € izango direla gehienezko laguntzaren 100a, guztizko ehunekoen eta gehienezko zenbatekoen 5. taula ezarriko da.

% AYUDAS e IMPORTE MAXIMO SEGÚN NIVELES DE RENTA Y MIEMBROS DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL $45\% \leq \Delta\text{Cep},\text{nrenv} < 60\%$						
INGRESOS BRUTOS	Miembros Unidad Convivencial					
	1		2		3 o Más	
	%	Máximo	%	Máximo	%	Máximo
Menos de 15000 €	100%	41.697	100%	41.697	100%	41.697
15.000 €-18.000 €	88%	36.694	100%	41.697	100%	41.697
18.000 €-25.000 €	77%	32.107	83%	34.609	100%	41.697
≥ 25.000 €	65%	27.103	65%	27.103	65%	27.103

5. taula

- c) Lehen mailako energia ez berriztagarren kasuan, $\Delta\text{Cep},\text{nren} \geq 60\%$ aurrezte lortzen bada, eta kontuan izanik 50.000,00 € direla gehienezko laguntzaren % 110, guztizko ehunekoen eta gehienezko zenbatekoen 6. taula ezarriko da.

% AYUDAS e IMPORTE MAXIMO SEGÚN NIVELES DE RENTA Y MIEMBROS DE LA UNIDAD CONVIVENCIAL $\Delta\text{Cep},\text{nrenv} \geq 60\%$						
INGRESOS BRUTOS	Miembros Unidad Convivencial					
	1		2		3 o Más	
	%	Máximo	%	Máximo	%	Máximo
Menos de 15000 €	100%	50.000	100%	50.000	100%	50.000
15.000 €-18.000 €	90%	45.000	100%	50.000	100%	50.000
18.000 €-25.000 €	80%	40.000	85%	42.500	100%	50.000
≥ 25.000 €	70%	35.000	70%	35.000	70%	35.000

6. taula

Laguntza hauek dirulaguntzak izango dira eta, gehienez ere, 30 urteko epean itzuli beharko dira, etxebizitza inter vivos transmititzen denean, baldin eta transmisio hori gehienezko epe hori igaro aurretik egiten bada, oinarri hauetako GIZARTE IRIZPIDEENGATIK EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULARAZTEARI buruzko 25. artikuluan adierazten den moduan.

IV. KAPITULUA. JABEKIDEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK

17. artikulua. AURRETIAZKO AZTERKETAK ETA PROIEKTU TEKNIKOAK

1. Energia-auditoretzetarako eta aurretiazko aurreproiektuetarako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa % 100ekoa izango da, 3.500 euroko mugarekin (BEZa barne) energia-auditoretzetan, eta 15.700 eurokoa (BEZa barne) aurreproiektuetan.

2. Eraikinaren txosten teknikoetarako (EIT) edo birgaitzeko dagoen eraikinaren liburuetaarako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa:

a) 20 etxebizitza arteko familia anitzeko eraikinen kasuan: 700 euro, gehi 60 euro etxebizitza bakoitzeko.

b) 20 etxebizitza baino gehiagoko familia anitzeko eraikinen kasuan: 1.100 euro, gehi 40 euro etxebizitza bakoitzeko, gehienez, 3.500 euroko dirulaguntza.

c) Eraikinaren Ikuskapen Teknikorik, Eraikinaren Ebaluazio Txostenik edo antzeko dokumenturik ez badago, laguntza % 50 handitu ahal izango da.

3. Eraikinen birgaitze integralerako proiektu teknikoak:

a) Familia anitzeko eraikinetan: 4.000 euro, gehi 700 euro etxebizitza bakoitzeko.

Bulego Teknikoak eta Hurbiltasuna Kudeatzeko Bulegoak aholkuak eta jarraibideak emango dizkie proiektuak idazten dituzten talde teknikoei aurrekontu orokor bakoitza zatitu behar den aurrekontu partzial bakoitzeko, zuzeneko eta zeharkako kostuen banaketei dagokienez, ondoren adierazten diren dirulaguntza moten arabera, 4. artikuluko 1. taulan (ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN JARDUERAK) zehaztutako kapituluaren edukari eta banaketari jarraikiz.

4. Eraikinen Birgaitze Integralerako Zuzendaritza Fakultatiboa:

a) Obra Zuzendaritzarentzat: 8.000 euro, gehi 1.500 euro etxebizitza bakoitzeko.

b) Obra Burutzeko Zuzendaritzarentzat: 8.000 euro, gehi 1.500 euro etxebizitza bakoitzeko.

c) Segurtasun eta osasun arloko koordinaziorako (proiektuan eta obran): 100 euro etxebizitza bakoitzeko

5. Laguntzaren zenbatekoak ezin izango du kostu osoa gainditu, zergak kenduta. Hala ere, BEZa edo zeharkako zerga baliokidea hautagarritzat jo ahal izango dira, baldin eta ezin badira berreskuratu edo konpentsatu, osorik edo zati batean.

6. Diruz lagundu ahal izango dira 2022ko martxoaren 29a baino geroago idatzitako dokumentuak, baldin eta OTGPK onartu baditu edo onartu baditu eta Kudeaketa Batzordeak baliozkotu baditu. Dokumentuak zein egunetan idatzi diren egiaztatzeko, dirulaguntzaren xede den dokumentazioa erregistro ofizialetan sartzen den lehen eguna hartuko da kontuan.

18. artikulua. ETXEBIZITZEN IRISGARritASUNA BERMATZEKO JARDUERAK

Eraikinaren eta haren etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzea helburu duten jarduketak guztiak sartuko dira, oinarri hauetako 4. artikuluko (ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN JARDUKETAK) c) puntuan deskribatutakoaren arabera.

- Ilogailuak instalatzea, arrapalak eta/edo eraikinetara sartzeko baliagarria izango den beste jardueraren bat egitea, irisgarritasun irizpideak beteta (lehentasunezkoa) edo praktikagarritasun irizpideak beteta (irisgarritasuna lortzea ezinezkoa bada), 28/2000 Dekretuaren arabera.

Adierazitako laguntzaren gehieneko zenbatekoak zehazteko, 15. artikuluan (DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GASTUA ETA DIRULAGUNTZAREN GEHIENEZKO ZENBATEKOA) behar bezala egiaztatu eta adierazitako kostu guztiak hartu ahal izango dira kontuan, BEZa edo zeharkako zerga baliokidea barne, baldin eta ezin badira berreskuratu edo konpentsatu, osorik edo zati batean.

19. artikulua. ERAIKINEAN ENERGIA EZ BERRIZTAGARRIEN KONTSUMOA MURRIZTEKO JARDUERAK

Berokuntzaren eta hoztearen urteko energia-eskaera globala eta lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa murriztera bideratzen diren jarduketak guztiak jasoko dira, energia-egiaztagirari buruzkoak biak, 4. artikulua (ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN JARDUERAK) d) puntuan deskribatutakoak.

20. artikulua. JABEKIDEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK AMIANTO HONDAKINAK KENTZEKO, MANIPULATZEKO, GARRAIATZEKO ETA KUDEATZEKO

OTGP partikularrekin lankidetzan arituko da, oinarri hauen arabera laguntza horiek ematea eskatzeko behar den dokumentazioa prestatzeko.

Amianto-hondakinak kendu, manipulatu, garraiatu eta kudeatzeko egiten diren jarduera guztiak sartuko dira, baldin eta enpresa espezializatuak egiten badituzte, 4. artikulua (OINARRI HAUETAKO ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN JARDUERAK) g) puntuan adierazten denaren arabera. Amiantoa duten elementuak kendu behar diren kasuetan, laguntzaren gehieneko zenbatekoa handitu ahal izango da, baimendutako enpresen bidez amianto-hondakinak kentzeko, manipulatzeko, garraiatzeko eta kudeatzeko egin behar diren jardueren kostuen ondorioz. Laguntza, gehienez ere, 1.000 euro handituko da etxebizitza bakoitzeko edo 12.000 euro birgaitzeko eraikin bakoitzeko.

21. artikulua. OBRA OSAGARRIAK EGITEKO JARDUERAK

Dirulaguntza nagusiaren gehienezko zenbatekoaren baitan ondoren adieraziko diren jarduera guztiak ere sartuko dira:

- a) Eraikinaren txosten teknikoak eskatzen eta gomendatzen dituen esku-hartzeak, 4. artikulua (ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN JARDUERAK) b) atalean adierazitakoak.
- b) Eraikinaren eta bere etxebizitzaren bizigarritasuna egokitzeko egin daitezkeen esku-hartzeak bermatzea xede dutenak, 4. artikulua (ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN JARDUERAK) b) atalean adierazitakoak.
- c) 4. artikulua (ERAIKINEN BIRGAITZE SAKONEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN JARDUERAK) f) atalean adierazitako instalazioak araudiari egokitzea xede dutenak.

V. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK, JARRAIPENA ETA ITZULARAZTEAK

22. artikulua. DIRULAGUNTZAK PIGNORATZEA EDO LAGUNTZA EDO DIRULAGUNTZA GUZTIEN KOBRANTZA LAGATZEA

Nolanahi ere, esku hartzen duten erkidegoek edo mankomunitateek kontu korrante eksklusibo bat irekiko dute finantza-erakunde batean, beren eraikina modu eraginkorrean birgaitzeko soilik, eta, jarraian, horri buruzko erabakia hartuko dute, indarrean dagoen Jabetza Horizontalaren Legean aurreikusitako gehiengoekin, xede horretarako berariaz deitutako Ezohiko Batzar batean.

Eraikina sakonki birgaitzeko laguntza guztien onuradunek kontu hori izango dute emandako laguntzen sarrera-kontu gisa, bai dagokien komunitateari edo mankomunitateari emandakoei, bai pertsona fisikoei edo bizikidetz-unitateari emandakoei dagokienez

Onuradunak finantzazioa lortzen badu lehen adierazitako obrak edo jarduerak egiteko, pignoratu edo laga ahal izango da jasotako laguntzak edo dirulaguntzak kobratzeko eskubidea finantzaketaren hartzekodun diren finantza-erakundeen alde.

Aurreko ondorioetarako, nahikoa izango da dirulaguntzak jasotzen dituzten finantza-erakundeek administrazio emaileari jakinaraztea lagapena edo pignorazioa egin dela, eta jakinarazpen horretan adieraztea zein kontutan ordaindu behar diren, ezeztaz gisa, administrazio horrek emandako laguntzari edo dirulaguntzari dagozkion zenbatekoak, hura eratutzat har dadin dagokion finantza-erakunde hartzekodunak finantzaketa ezereztu izanaren berrespena jaso arte.

23. artikulua. DIRULAGUNTZAREN JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA EGITEA. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Oinarri hauetan araututako laguntzak emateko egintzan ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta hura garatzen duen Erregelamenduaren 72. eta 75. artikuluetan ezarritako prozedurak erabiliko dira.

Erakunde onuradunek administrazio emakida-emaileak egindako egiaztapen-jarduerak bete beharko dituzte, bai eta, hala badagokio, Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolako jarduketak eta Kontuen Auzitegiaren legerian aurreikusitakoak ere.

24. artikulua. ELEMENTU PRIBATIBOAK INTER VIVOS BORONDATEZ XEDATZEAGATIK, JABEKIDEEN ERKIDEGOARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ITZULARAZTEA

Birgaitze-proiektuaren garapenean ekintza publikoak sortutako gainbalioetan Administrazioak parte hartuko duela eta emandako laguntzak itzuliko direla bermatzeko, Jabeen Erkidegoak elementu pribatiboengatik (Jabeen Komunitatean duen partaidetza-kuotaren arabera) jasotako dirulaguntzen zati proportzionala itzuli beharko zaio Udalari, diruz lagundutako eraikinaren parte diren etxebizitzak edo higiezinetakako elementuak inter vivos eskualdatzen direnean.

Birgaitzeko dirulaguntzen xede diren higiezinak ezin izango dira borondatezko inter vivos transmisioaren esku egon obraren azken ziurtagiria egin eta 10 urteko epean, baldin eta saltzaileak alde aurretik egiaztatzen ez badu transmisioaren xede den elementuari egotz dakizkiokeen laguntzak itzuli direla, itzulketa egiten den unean eguneratuta, 6. taulan (Itzulera-oinarria) jasotako ehunekoen arabera.

Lehen aipatutako ondorioetarako, ez da eskualdaketatzat hartuko etxebizitza osoa titularkide bati esleitzea, ezkontza-banantzeen, dibortzioen edo izatezko bikotearen hausturaren edo/eta bizikidetz-unitatearen hausturaren ondorioz, lehen mailako odolkidetasunez elkartutako kideen kasuan.

Etxebizitzan eta lokalen titularrek dirulaguntza eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagokion Jabetza Erregistroan. Bertan, administrazio-agiri hori ikusita, hipoteka-legeriaren arabera bidezkoa den jabariaren xedapen-mugaren erregistro-idazpena egingo da.

Itzulketa hori obrak gauzatzeko prozesuan bizien artean gertatzen diren eskualdaketetan ere gauzatu beharko da.

Jasotako laguntza irizpide hauen arabera itzuliko da:

- Ohiko etxebizitza ez diren edo beren konturako jarduerari atxikita ez dauden etxebizitzaren edo lokalen titular diren pertsona fisiko edo juridikoek dirulaguntza emateko ziurtagirian jasotzen den balioaren % 100 itzuli beharko dute, bai proiektua gauzatu bitartean (laguntza ematea ebatzi ondoren), bai obren amaierako ziurtagiria eman ondorengo hamar urteetan.
- Etxebizitzaren eta lokalen gainerako titularrek, inter vivos egiten diren transmisioetan, 6. taulan (Itzulera-oinarria) adierazitako laguntza ekonomikoa emateko ziurtagirian jasotzen den balioaren ehunekoa itzuli beharko dute:

7. taula. Itzultzeko oinarria

ESKUALDATZEAREN DATA	ITZULTZEKO EHUNEOA
Obra exekutatu bitartean edo lehengo urtean	100
Bigarren urtean	91
Hirugarren urtean	82
Laugarren urtean	73
Bosgarren urtean	63
Seigarren urtean	53
Zazpigarren urtean	43
Zortzigarren urtean	33
Bederatzigarren urtean	22
Hamargarren urtean	11
Hamargarren urtetik aurrera	0

Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, eskualdatu beharreko elementuaren komunitatean duen partaidetza-kuota izango da kontuan, eta horri jabekideen erkidegoari emandako laguntza eta igarotako denborari dagokion itzulera-taulako ehunekoa aplikatuko zaizkio.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarrerak izango dira, eta betearazte-bidetik eskatu ahal izango dira.

25. artikulua. GIZARTE IRIZPIDEENGATIKO LAGUNTZAK ITZULARAZTEA

Gizarte-irizpidearen arabera emandako laguntzak itzuliko direla bermatzeko eta ekintza publikoak sortutako gainbalioetan Administrazioak parte hartuko duela bermatzeko birgaitze-proiektuaren garapenean, Udalari irizpide sozialaren arabera jasotako dirulaguntzen zenbatekoa itzultzeko betebeharra ezartzen da, etxebizitza inter vivos eskualdatzen denean. Itzultzeko gehieneko epea hogeita hamar (30) urtekoa da, obraren amaierako ziurtagiriaren datatik zenbatzen hasita.

Etxebizitzaren titularrek gizarte-irizpidearen araberako laguntza ekonomikoa eman izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagokion Jabetza Erregistroan. Bertan, administrazio-agiri hori ikusita, hipoteka-legeriaren arabera bidezkoa den jabariaren xedapen-mugaren erregistro-idazpena egingo da.

Ezin izango da inter vivos etxebizitza eskualdatu, baldin eta saltzaileak aldeztu aurretik egiaztatzen ez badu eskualdatutako elementuari egotz dakizkiokeen gizarte-irizpidearen kontzeptuagatik jasotako laguntzak itzuli direla.

Lehen aipatutako ondorioetarako, ez da eskualdaketatzat hartuko etxebizitza osoa titularkide bati esleitzea, ezkontza-banantzeen, dibortzioen edo izatezko bikotearen hausturaren edo/eta bizikidetzaren unitatearen hausturaren ondorioz, lehen mailako odolkidetasunez elkartutako kideen kasuan.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarrerak izango dira, eta betearazte-bidearen bidez eskatu ahal izango dira.

ESKUALDATZEAREN DATA	ITZULTZEKO EHUNEKOAK
Obra exekutatu bitartean edo lehenengo urtean	% 100,00
2. urtean	% 96,67
3. urtean	% 93,33
4. urtean	% 90,00
5. urtean	% 86,67
6. urtean	% 83,33
7. urtean	% 80,00
8. urtean	% 76,67
9. urtean	% 73,33
10. urtean	% 70,00
11. urtean	% 66,67
12. urtean	% 63,33
13. urtean	% 60,00
14. urtean	% 56,67
15. urtean	% 53,33
16. urtean	% 50,00
17. urtean	% 46,67
18. urtean	% 43,33
19. urtean	% 40,00
20. urtean	% 36,67
21. urtean	% 33,33
22. urtean	% 30,00
23. urtean	% 26,67
24. urtean	% 23,33
25. urtean	% 20,00
26. urtean	% 16,67
27. urtean	% 13,33
28. urtean	% 10,00
29. urtean	% 6,67
30. urtean	% 3,33
30. urtetik aurrera	% 0,00

8. taula. Itzultzeko oinarria

26. artikulua. LAGUNTZAK ITZULARAZTEA ESLEIPEN BIDE GABEEN KASUAN

Esleipen-proposamenaren txostenean adierazitakoa ez den beste edozein lizitatzaileri esleitzea, 12. artikuluan (KUDEAKETA BATZORDEAK) azaltzen den bezala. LANAK ESLEITZEKO BETEKIZUNAK prozedura deuseztatzea eta administrazioek orain arte ordaindutako dirulaguntzak itzultzeko eskatzea ekar dezake, aurreko atalean adierazten den bezala.

VI. KAPITULUA. PROZEDURA. DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA ETA ORDAINKETA

27. artikulua. ESKAERAK AURKEZTEA: EPEA ETA ERA

1. Deialdia egin duen organoari zuzendutako eta onuradunak edo haren ordezkariak izenpetutako dirulaguntzak lortzeko eskabideak aurkezteko epea, erantsitako dokumentazioarekin batera, deialdia argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta bi fase izango ditu:

1.- Lehenengo fasean, jabekideen erkidegoek Olasogain auzoko (Sigma) hiri-berroneratzeko esku-hartze programan sartzeko erabakia aurkeztu beharko dute, eta epe hori 2023ko maiatzaren 30ean amaituko da.

Alkatetzaren ebazpen bidez, programari atxiki zaizkion onuradunen zerrenda onartuko da, eta ebazpen hori interesdunei jakinaraziko zaie.

2.- Bigarren fasean, oinarri hauetan jasotako programari atxikitze erabakia aurkeztu duten jabekideen erkidegoek laguntza-eskabidea eta obra-lizentzia aurkeztu ahal izango dituzte, eta horretarako epea 2023ko azaroaren 13an amaituko da. Eskabidea eta dokumentazioa aurkezteak berekin dakar oinarri hauek baldintzarik gabe onartzea. Eskabidea adierazitako epean aurkezten ez bada, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

2. Laguntzen onuradunek, horien legeko ordezkariak edo erakundeak, hurbiltasun-bulegoak, agenteak edo birgaitze-kudeatzaileak aurkeztuko dituzte eskabideak.

Jabeen komunitatea ordezkatzeko duenak izapidetu beharko ditu laguntzak, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legean ezarritakoaren arabera, edo, bestela, behar bezala egiaztatutako komunitatearen ordezkari batek.

3. Eskaerak bide telematikoen bitartez aurkeztuko dira Elgoibarko Udalaren egoitza elektronikoan. Eskabidearekin batera, 33. artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.

4. Eskabidea eta dokumentazioa aurkezteak berekin dakar oinarri hauek baldintzarik gabe onartzea.

5. Norbanakoei edo bizikidetza-unitateei oinarri hauetako 16. artikuluan (AHULTASUN EKONOMIKOKO EGOERAN DAUDEN PERTSONA FISIKOENTZAKO EDO BIZIKIDETZA-UNITATEENTZAKO LAGUNTZA GEHIGARRIAK) ezarrita dauden gizarte irizpideengatik eskaerak, hala badagokio, kasu kasuko laguntza nagusiak eskatzen diren egintza berean aurkeztuko dira.

6. Oinarri hauetan aintzat hartuko diren laguntzen eskatzaileak, era berean, Gertuko Bulegoari eska diezaioke horiekin bateragarriak diren beste laguntza-eskabide batzuk beren izenean aurkezteko, erakunde arduradunetan izapidetzeko, erakunde horiekin koordinatuta. Eskatzaile horiek erakunde horiek kasu bakoitzean eskatzen duten dokumentazioa emango diote Gertuko Bulegoari.

28. artikulua. AKATSAK EDO HUTSEGITEAK ZUZENTZEA

1.- Aurkeztutako eskabidean akatsen bat, okerre bat edo hutsegiteren bat antzemanen gero, modu frogagarrian jakinaraziko zaio eskatzaileari, eta hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko, zuzentzeko edo aurkezteko. Hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, prozeduraren instrukzio-organismoak ebazpena eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Eskabidea formatu ofizialaren arabera aurkezten ez bada edo eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, emandako zuzenketa-epea igarotakoan, eskatzaileak atzera egin duela ulertuko da.

29. artikulua. TRAMITAZIOA, EBAZTEKO EPEA ETA JAKINARAZPENA

Prozeduraren instrukzioa Elgoibarko Udaleko Hirigintza Sailak egingo du.

Eskabideak aurkezteko lehenengo fasean, programari atxiki zaizkion onuradunen zerrenda Alkatetzaren ebazpen bidez onartuko da.

Eskaerak aurkezteko bigarren fasean, Tokiko Gobernu Batzarrak ebartziko du laguntzak ematea. Dirulaguntza emateko erabakia hartzeko, aholkulari juridikoak eta udal-teknikariek aurkeztutako eskabide eta proiektuei buruz egiten dituzten txostenak hartuko dira oinarritzat.

Laguntza emateko akordioa jakinarazteko gehiezneco epea HIRU HILABETEKOA izango da, eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan ebazpenik jaso ez bada, eskabidea ezetsizat joko da, esanbidez ebazteko betebeharraren kalterik gabe. Hartzen den ebazpenaren aurka errekurtsioa jarri ahal izango da, hurrengo paragrafoan ezarritako moduan.

Oinarri hauetan aintzat hartzen ez diren laguntza guztietarako, prozeduraren instrukzioa, kasu bakoitzean, eskumena duen organismoan egingo da. OTGPK, leihatila bakarra den aldetik, arestian adierazitakoekin koordinatu ahal izango ditu, eta onuradunen izenean egin ahal izango ditu eskabideak.

Laguntzak emateko erabakiak honako hauek adieraziko ditu: pertsona edo erakunde onuradunen izena edo izen soziala, IFK edo NANA, finantzatutako jarduera, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzaren zenbatekoa, diruz lagundutako jarduketaren arabera banakatua, aurrekontu-urteka banatuta, eta obrak egiteko epea. Eskabideren bat ukatuz gero, erabakiak eskatzaileen izena edo izen soziala, IFK eta ukatzeko arrazoiak jasoko ditu. Nolanahi ere, erabakia eskatzaileari jakinaraziko zaio.

Onuradunei laguntzak eta dirulaguntzak ematea eta, hala badagokio, ordaintzea nahitaez lotuta egongo dira oinarri hauen xede diren birgaitze sakoneko jardueren finantzaketarekin. Nolanahi ere, laguntza horiek jabeen erkidegoak irekitako kontu korrontean ordainduko dira, xede horretarako bakarrik.

Onuradunek 10 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko, ebazpena jakinarazten den unetik zenbatzen hasita. Onuradunek dirulaguntza onartutzat joko dute, baldin eta adierazitako epean ez badute berariaz adierazi uko egin diotela.

30. artikulua. ERREKURTSOAK

Tokiko Gobernu Batzarraren akordioak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Hala ere, aukerako izaeraz eta aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri aurretik, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio errekurtsioa eman zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

31. artikulua. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK ERALDATZEA

Jarduketaren titularra aldatuz gero, betiere pertsona fisikoa bada, laguntzak aitortzeko eman den administrazio-ebazpena eman ondoren, hura ezeztatu egingo da, eta jarduketaren titular berriaren aldeko beste ebazpen bat emango da, aurreikusitako baldintzak betetzen baditu. Jabeen Erkidegoko ordezkariaren kasuan, ordea, eskabidea aurkezteko baimena eman zion kargua duenak ordezkatu du.

Laguntzak ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, betiere laguntzen xedea betetzat jotzen bada, eta, hala badagokio, aldi berean beste edozein erakunde publiko edo pribatutatik beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jasotzen badira, aldeztu aurretik jakinarazi beharko da, dirulaguntza emateko eskumena duen organoak berariaz onar dezan, eta, ondorioz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

Horretarako, organo eskudunak dagokion aldaketa- edo likidazio-ebazpena emango du. Ebazpen horretan, emandako laguntzen zenbatekoa egokituko da, laguntza horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuz, eta onuradunak, hala badagokio, soberan jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

Aurkeztutako dokumentazioaren analisiak erakusten badu energia primario ez-berritzagarriaren kontsumoan aurrezpenak hasieran zenbatetsitakoak baino txikiagoak eta eskatutako gutxienekoak baino handiagoak direla, kontzeptu horrengatik emandako laguntza publikoei baja emango zaie.

Aurkeztutako dokumentazioaren analisiak erakusten badu lehen mailako energia ez-berritzagarriaren kontsumoan aurrezpenak hasieran zenbatetsitakoak eta eskatutako gutxienekoak baino txikiagoak direla, emandako laguntza publiko guztiak itzuliko dira.

Aldaketak ez du inola ere eraginik izango jarduketaren izaeran, eta ezingo du ekarri dagokion laguntza ematea justifikatzen duten baldintzak ez betetzea.

Obrek dirauten bitartean, aurrekontuan sartutako kontzeptuen barruan, partiden kostua beherantz aldatzen bada, emandako ebazpena aldatuko da, baldin eta aurrekontua, inbertsioa edo diruz lagun daitezkeen kostuak murrizten badira, eta, ondorio horietarako, laguntza gutxitzeko ebazpen bat eman ahal izango da. Nolanahi ere, obrak egiten ez badira, eskatutako dokumentazioa aurkeztzen ez bada, edo laguntzak jasotzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez badira, laguntzak ezeztatu egingo dira, eta jasotako zenbateko guztiak itzuli egin beharko dira.

32. artikulua. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Dirulaguntza emateko ebazpena Dirulaguntzen Oinarri Nazionalean argitaratuko da, honako hauek adierazita: deialdia, programa, egosten zaion aurrekontu-kreditua, onuraduna, emandako zenbatekoa eta dirulaguntzaren xedea edo helburuak.

Laguntzen xede den jarduera edozein hedabidetan aipatzen bada, oinarri hauetako 12. (KOMUNIKAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO BALDINTZAK) artikuluan ageri diren baldintzak bete beharko dira.

Gainera, abenduaren 9ko 19/2013 Legean (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan) aurreikusitakoa bete beharko du, oinarri hauen xede diren laguntzen publizitate-betebeharrei dagokienez.

33. artikulua. DIRULAGUNTZA ESKEAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Laguntzak jabeen erkidegoa ordezkatzeko duenak izapidetu beharko ditu, Elgoibarko Udalaren egoitza elektronikoa horretarako dauden ereduak arabera.

1.- Hiria berroneratzeko esku-hartze programan sartzeko **akordioa aurkeztean**, honako dokumentazio hau erantsiko da:

- a) Eskatzailearen datuak, abizenak eta sozietatearen izena eta IFZ adierazita. Eskatzailea errehabilitazioko agentea edo kudeatzailea bada, laguntzen azken hartzailearen/onuradunaren akordioa aurkeztu beharko du, hala jarduteko ahalmena eman eta baimena ematen diona.
- b) Hala badagokio, ordezkariaren datuak, abizenak eta izena adierazita, IFZ, bai eta duen ordezkariaren egiaztapena ere, aplikatu beharreko araudi espezifikoaren arabera.
- c) Jabekideen erkidegoen kasuan, idazkariaren edo administratzailearen aktaren edo ziurtagiriaren kopia, dirulaguntza eskatzeko baimendutako ordezkariaren izendapena jasotzen duena.
- d) Jabeen Erkidegoaren, haren ordezkariaren edo higiezinaren jabe den pertsona juridikoaren Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) fotokopia.
- e) Akta, jabekideen erkidegoaren erabakiarekin; horren bidez, programan sartzeko eta eraikina sakonean birgaitzeko proiektu teknikoaren egitea erabaki da.

2.- **Laguntza-eskabidea eta obra-lizentzia aurkeztearekin batera**, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Jabekideen erkidegoaren akta, laguntzak eta obra-lizentzia eskatzeari buruzko erabakia jasotzen duena.
- b) Dirulaguntzaren xede den higiezinaren osatzen duten elementu guztien erregistroko inskripzioei buruzko ohar sinpleak.
- c) Jarduketetako partaidetza-kuotaren taula, eraikineko elementu bakoitzak bere partaidetza-kuotaren arabera ordaindu beharreko zenbatekoa adierazten duena.
- d) Emandako laguntza sartuko den jabekideen erkidegoaren banku-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria.
- e) Birgaitzeko dagoen eraikinaren liburua edo, halakorik ezean, eraikinak edo etxebizitzak hobetzeko duen ahalmenari buruzko azterlana, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999

Legeari zehaztutako oinarriko betekizunei dagokienez, eta proposatutako jarduketari eta hobekuntzari identifikatzen dituen jarduketari-plana.

f) Eraikinaren birgaitze eraginkorrerako proiektu teknikoari, dagokionaren arabera, laguntzen azken hartzailearen/onuradunen adostasunarekin.

g) Hasieran, eta modu alternatiboan, proposatutako jarduerari justifikatzeko memoria aurkeztu ahal izango da. Memoria honetako gutxieneko dokumentazioak jarduketaren deskribapena jasoko du, IV. KAPITULUAN (JABEKIDEEN ERKIDEGOENTZAKO LAGUNTZAK) jasotako atalen arabera banakatuta. Memoria horri, aurrekontuari, irizpide horiekin beroriekin egindako planoak banakatzea erantsiko dira 4. artikuluko (ERAIKINEN ERABERRITZE SAKONEAN KONTUAN IZAN BEHAR DIREN JARDUERAK) 01 Taularen arabera.

h) Gizarte-irizpidearen araberrako laguntzari eskatu duten jabeen eta bizikidetzari-unitateen zerrenda erantsiko da, haien izaerari justifikatzen duten agiriekin batera.

i) Eraikina sakonki birgaitzeko proiektu teknikoaren kasuan, eragina jasango duten eremu guztien eta eraikinaren fatxada nagusiaren argazki-erreportajea, ahal dela koloretan.

j) Diruz lagundu daitezkeen etxebizitzari bateko elementuak birgaitzeko, argazki-erreportajea, ahal dela koloretan, ordeztu edo bikoiztuko diren leiho edo kristalezko itxitura guztienari, bai eta horiek dauden eraikinetako fatxadenari ere.

k) Eraikinaren liburuari, eraikinaren ikuskapen teknikoari, aurreproiektuari, oinarriko proiektuari eta/edo gauzatze-proiektuari, obren zuzendaritza fakultatiboari eta egin diren edo egingo diren beste edozein lan tekniko edo kudeaketa-lan idazteko ordainsariak.

l) Lehendik dagoen eraikinaren edo etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, dagokionaren araberrari, egungo egoeran, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan eskatutako edukiarekin, teknikari eskudunak sinatua eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratua.

m) Eraginkortasun energetikoaren gutxi gorabeherako ziurtagiria, proiektuan jasotako jarduerak edo justifikazio-memoriari barne, egungo eraikinaren edo etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagirirako erabilitako ziurtapen-programari aitortu berarekin egin, teknikari eskudunak sinatua.

n) Eskatutako laguntzari guztien zerrenda, ehunekoiari eta zenbatekoak, lehen adierazitako aurrekontu-banaketaren araberrari.

o) Taula bat, non jarduerak dakartzan gastu guztiak jasoko baitira (administrariaren gastuak, obrarengatik ordaindu behar diren udal Zergak eta Tasak e.a. sartuko dira).

p) Irizpide sozialeko laguntzetarako, bizikidetzari-unitateari osatzen dutenen NANen fotokopia. Pertsonak etxebizitzari erroldatuta daudela Udalak berak egiaztatuko du.

q) Irizpide sozialeko laguntzen kasuan, eta bizikidetzari-unitateko kide adindunentzat: PFEZren zerga-oinarrien, oinarri orokorren eta aurrezki-oinarrien ziurtagiria, edo foru-aldundiak emandako lan-etekinena eta atxikipenena; edo, halakorik ezean, Gizarte Segurantzak edo beste erakunde eskudun batzuek emandako langabeziari-prestazioen, pentsioen edo bestelako diru-sarreraren ziurtagiriak.

Gertuko Bulegoak behar beste aldiz erreproduzituko du arestian adierazitako dokumentazioari, baita oinarri hauetan eta koordinatuko duen beste edozeinetan aurreikusitako dirulaguntzen eskaerak egiteko kasuan kasuko erakunde eskudunek eskatzen dutenari ere.

Eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko Elgoibarko Udalaren esku dauden dokumentuak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren araberrari, baldin eta bost urte baino gehiagori igaro ez badira dagokien prozedura amaitu zenetik. Eskabide-inprimakian adierazi beharko da noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, noiz eman ziren.

Elgoibarko Udalak, **NISAEren nodoaren bidez**, beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden pertsona interesdunen datuei buruz, bai eta dirulaguntzari honen izapidetze administratiborako eskatzen den beste edozein datuari buruz ere. Hori dela eta, elkarreragingarriak izan

daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak datu horiek erabiltzearen aurka egiten ez badu; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Illo horretatik, Elgoibarko Udalak egiaztatu egingo ditu datu-bitartekaritzako plataformako eta NISAEko beste administrazio batzuetako zerbitzuek oinarri hauen xede den dirulaguntza jasotzeko baldintza hauek: bai jabekideen erkidegoek, bai, hala badagokio, irizpide sozialengatiko laguntzak eskatzen dituztenek **Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.**

Hori dela eta, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak datu horiek erabiltzearen aurka egiten ez badu; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

34. artikulua. DIRULAGUNTZEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan arautzen eta deitzen diren laguntzak guztiz bateragarriak izango dira Foru Ogasunek etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko jarduerekin lotuta ezartzen dituzten kenkariekin, hobariekin edo bestelako zerga-onurekin, hori guztia berariazko araudian xedatutako baldintzetan.

Oinarri arautzaile hauetan aintzat hartutako dirulaguntza eta laguntza guztiak bateragarriak dira beren artean eta xedearekin bat datozen eta xede berekoak direla dioten beste administrazio publiko batzuek edo erakunde publiko edo pribatuak emandakoekin, baldin eta, oro har, kasu bakoitzean babes daitezkeen aurrekontuen % 100 gainditu ezin badute.

Bereziki, Elgoibarko Udalak igogailuak jartzeko obretarako ematen dituen dirulaguntzekin bateragarriak izango dira. Era berean, bateragarriak izango dira 853/2021 EDko Auzoen 1. Programatik eratorritakoekin, baita eskubideen titular bakoitzari, banaka eta taldeka, legozkiokeen laguntzekin:

- programa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko AGINDUAK arautzen dena. Agindu horren bidez, bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko laguntza-programetarako laguntzen oinarriak ezarri eta laguntzen deialdi publikoa arautzen da, eraginkortasun energetikoa sustatzeko. Programa horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan daude jasota, eta haren bidez arautzen dira Europar Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (NextGenerationEU) bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko 3., 4. eta 5. programak.

Artikulu honetan xedatutakoa egiaztatzeko, oinarri hauetan deitzen diren laguntzen eskabidean, interesdunek adierazi beharko dute helburu berarekin eskatu edo eman diren gainerako laguntzak, edo helburu bererako beste eskabiderik edo laguntzarik ez dagoela erantzukizunpeko adierazpen bidez.

Bateragarritzat jotako laguntzen izapideak laguntza bakoitzari dagokion prozeduraren arabera egingo dira, oinarri eta deialdi arautzaileetan ezarritakoaren arabera.

Talde teknikoek jarduketan aurrekontuaren hainbanaketa eta horren laburpena emango dute, aurreikusitako jarduketa-moten eta dirulaguntzak eskatzen zaizkion erakunde bakoitzaren izapidetze-baldintzen arabera. Jarduketa bakoitzak aurrekontu independente bat izango du, eta, bertan, zuzenean, zeharka eta berari egotz dakizkiokeen zerga guztiak jasoko dira. Era berean, jarduketa guztien aurrekontu osoa erantsiko da, dira 4. artikuluko (ERAIKINEN ERABERRITZE SAKONEAN KONTUAN IZAN BEHAR DIREN JARDUERAK) 1. Taularen arabera.

35. artikulua. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO ERA. KONTURAKO AURRERAKINAK

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez ordainduko dira, organo instruktopeak egindako proposamenari jarraikiz, jarduketa bakoitzari dagozkion ataletan

eskatutako egiaztagiriak aurkeztu eta, hala badagokio, egiaztatu ondoren. Ebazpen horretan berariaz aipatuko da funtsen jatorria.

Aitortutako laguntzak banku-transferentzia bidez jasoko dira. Transferentzia hori pertsona edo erakunde onuradunak baliozkotu duen eraikinaren birgaitze efizienterako baino ez da egingo, eta, horretarako, hirugarrenaren alta bete beharko da aldez aurretik.

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioaren bidez, dokumentazioa aurkeztu eta egiaztatu ondoren organo instruktoreak egindako proposamenari jarraikiz, aurrerakinak eman ahal izango zaizkie oinarri hauetan jasotako dirulaguntzen azken hartzaileei, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- a) **Aurrerakin horiek ez gainditzea** onuradunari emango zaion **laguntzaren zenbateko osoaren % 20**.
- b) Aurrerakin horiek dirulaguntzaren xede den jarduketaren gastuak ordaintzeko baino ez erabiltzea, eta egoki justifikatzea.

Aurrerakin horiek ez ditu pertsona edo erakunde onuradunak bermatu beharko.

36. artikulua. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO SEKUENTZIA

Dirulaguntzen ordainketa sekuentzia eta prozedura honen arabera egingo da:

a) Lehenengo ordainketa, kasu bakoitzean eskatutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoaren % 20koa, aurrerakin gisa. Ordainketa hori eskabidea aurkeztu ondoren egingo da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta honako agiri hauek erantsiko zaizkio:

- o 8. artikuluan aipatutakoak (LAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK).
- o 33. artikuluan aipatutakoak (DIRULAGUNTZA ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA).
- o Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua egin izanaren faktura, eraikinaren egungo Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak eta birgaitutakoa barne hartzen dituen, Lehen Mailako Energia EZ Berriztagarriaren Kontsumoaren Murrizketaren ehunekoa berariaz adierazita.
- o Exekuzio proiektuaren eta azterketa geoteknikoaren faktura.
- o Egin den beste edozein jardueraren faktura, baldin eta dirulaguntza honen oinarriekin zerikusia badu.
- o Eraikinaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria, egungo egoerari dagokiona, organo eskudunean erregistratzea, egungo egoeran.
- o Higieziearen etxebizitza guztien jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiria, oinarri hauetako 0 artikuluan eta 13. artikuluan adierazitakoaren arabera.
- o Dirulaguntzaren xede diren obra guztiak gauzatuko direla bermatzen duten kontratuaren edo kontratuen fotokopia, obra gauzatzeko ardura duen enpresarekin edo enpresekin.
- o Obra Hasierako Aktaren kopia, jabeen erkidegoko presidenteak, eraikuntza-enpresaren ordezkariak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatua.

b) Bigarren ordainketa, benetan eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10ekoa, eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, horretarako ezarrita dagoen ereduaren arabera, eta honako dokumentazio hau erantsiko da:

- o Jarduketak gauzatzeko zenbatekoaren % 10, gutxienez, estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

c) Hirugarren ordainketa, benetan eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 15ekoa, eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta honako dokumentazio hau erantsiko da:

- o Gutxienez obra gauzatzeko zenbatekoaren % 25 estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

d) Laugarren ordainketa, benetan eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 15ekoa, eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta honako dokumentazio hau erantsiko da:

- o Gutxienez obra gauzatzeko zenbatekoaren % 50 estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

e) Bosgarren ordainketa, benetan eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10ekoa, eskabidea aurkeztu ondoren ordainduko da, horretarako dagoen ereduaren arabera. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- o Gutxienez obra gauzatzeko zenbatekoaren % 75 estaltzen duten fakturak. Fakturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

f) Gainerako zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da, hurrengo paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Inola ere ez dira ordainduko fase bakoitzean justifikatutakoak baino zenbateko handiagoak.

37. artikulua. JASOTAKO DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA

Azken hartzaileek jarduketak gauzatu direla justifikatu beharko dute organo instruktorearen aurrean. Horretarako, jarraian agertzen diren agiri orokorrak aurkeztu beharko dituzte, hurrengo deialdietan eska daitezkeen agiri osagarriak alde batera utzi gabe:

a) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, oinarri hauetan eta laguntza emateko ebazpenean eskatutakoaren arabera, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Memoria hori teknikari tituludun eskudun batek egin eta sinatuko du, eta jardueren amaiera-data ere adieraziko du. Bertan, nahitaez bete beharreko araudia betetzen dela adieraziko da.

b) Fakturak ordaindu izanaren egiaztapenak.

c) Aurretik aurkeztu ez diren obra gauzatzearen fakturak.

d) Obren amaierako ziurtagiria, obren zuzendari fakultatiboak emana eta sinatua.

e) EITan identifikatutako patologia eta kalteak zuzendu izanaren ziurtagiria.

f) Eraikinaren edo etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, jarduketak egin ondoren lortua, esku-hartzearen aurreko ziurtagirirako erabilitako ziurtapen-programa aitortu berarekin egina, teknikari eskudunak sinatua, laguntza lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena, eta autonomia-erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratua.

g) Instalazio termikoaren ziurtagiria, hala badagokio, instalazioaren zuzendariak edo baimendutako instalatzaileak sinatua, Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren erregistratua, EITeren arabera.

h) Jasogailuaren alta-ziurtagiria RAEn, hala badagokio, segurtasunaren arloko baldintza guztiak betez, 88/2013 Errege Dekretuak ezartzen duenaren arabera.

i) Gauzatutako obren argazki-dokumentazioa, ahal dela koloretan.

j) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna jasotzen duen ziurtagiria edo erantzukizunpeko adierazpena, zenbatekoak eta jatorria adierazita, lehendakaria edo, hala badagokio, Erkidegoko idazkaria edo administrazioa den pertsonak emana. Hala badagokio, etxebizitzaren titularraren edo titularren erantzukizunpeko adierazpena.

Obrak exekutatzeko gehienezko epea 18 hilabetekoa izango da, obra-lizentzia eman dela jakinarazten denetik kontatzen hasita. Hala ere, laguntzaren eskatzaileei egotz ezin dakiekeen arrazoi justifikaturen batengatik obraren hasiera edo exekuzioa atzeratzen bada, epea amaitu baino lehen obra luzatzeko eskatu ahal izango da.

Dirulaguntza ematea eragin zuen helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko epea (onuradunek egindakoa) bi hilabetekoa izango da, aurreko paragrafoan adierazitako data amaitzen denetik kontatzen hasita. Nolanahi ere, epea ezin izango da **2025eko azaroaren 30a** baino gehiago luzatu.

38. artikulua. EZ BETETZEA ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAK ITZULARAZTEA

Egiaztatzen baldin bada onuradunek

- Ez dutela dirulaguntza erabili eskatu eta eman zen helburu espezifikorako,
- Ez dutela egin dirulaguntza eragin zuen jarduketa,
- Ez dutela justifikatu zer helburu zehatzetarako eskatu zen, edo, oro har,
- Ez dituztela betetzen dirulaguntza ematea eragin zuten baldintzak.
- Uko egiten diotela ikuskapen-lana errazteari
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoaren arabera onuradunei esleitutako betebeharrak edozein betetzen ez dutela, edo horiek epea kanpo betetzen dituztela, baldin eta baldintzak edo epea guztiz betetzea erabakigarria bada lortu nahi den helburu publikoa lortzeko, edo bestela,
- 26. artikuluan (LAGUNTZAK ITZULARAZTEA ESLEIPEN BIDE GABEEN KASUAN) aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira.

Interesdunari entzun ondoren, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat joko da, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Udaleko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzei buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Higiezinaren etxebizitza baten edo batzuen jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztapena aurkeztu ezean, emandako laguntza murriztu egingo da, jabetza horizontalaren zatiketan etxebizitza horiei higiezin osoan esleitutako partaidetza-kuotaren ehuneko baliokidean.

Administrazioaren zerbitzuek egiaztapen edo kontrol finantzario bat egitean agerian geratzen bada egindako gastu guztiak edo batzuk ez direla ordaindu, dirulaguntza kobratu ondoren, eta hartzekodunek eskatu ahal badute, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz eskatuko da itzulketa, eta, horretarako, dirulaguntza itzulgarritzat joko da, ordaindu gabeko gastuen proportzioan.

Era berean, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko da, eta horrek dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa exijitzea dakar.

39. artikulua. DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTEK ETA ADMINISTRAZIO ZEHAPENAK. ZIGOR PROZEDURA

Gai honi dagokionez, ELGOIBARKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN DIRULAGUNTZEI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRAREN V. TITULUAN (2009/02/9ko GAO) xedatutakoa beteko da.

40. artikulua. ADMINISTRAZIO BIDEAREN BUKAERA ADIERAZTEA.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke, bi hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

41. artikulua. DATU PERTSONALEN BABESA

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuta, erakunde eskatzaileak adierazi du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarri hauek osorik onartzen dituela. Halaber, adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan tratatzea eta Elgoibarko Udalaren behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko. Datu horiek beste administrazio publiko batzuei edo hirugarren batzuei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoan, aurreikusitako kasuetan.